Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Natividad Zabaleta Yarza

Legazpi, Gipuzkoa (1936)



Aurkibidea

Biografia



Legazpiko Egialde auzoko Eguzkitza baserrian jaio zen 1936an. Eskolan Legazpin ibili zen 14 urtera arte; eta, gerora, josten ikasten aritu zen Eskolastikarekin Legazpin bertan. Baserrian bizi izan da beti eta artzaintza gertutik ezagutu izan du.

Zintak

LGA-062

- **Proiektua**: Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Data**: 2010-11-11
- **Iraupena**: 78 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Ardiak eta behiak baserrian

- **Erref**: LGA-062/003
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:04:09. **Bukatu**: 00:07:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Ardiak eta behiak zituzten baserrian, txerriren bat ere bai, eta oiloak. Behiek emandako esnea familiakoen artean banatzen zuten. Lehen ardiak txabolan jezten zituzten, baserritik ordu erdiko bidea egongo zen txabolara arte.

2. Ardi mutur beltzak

- **Erref**: LGA-062/004
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:07:02. **Bukatu**: 00:10:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardiak larrean elikatzen ziren, belar onduaz bestela, eta ume garaian pentsu pixka bat eman ohi zitzaien, etxeko arto eta gariz egina. Ardi mutur beltzak izan zituzten, mutur gorriren bat ere izan zuten arren. Gaztetxoak zirela astoarekin joaten ziren Zumarragara, igandeetako azokara arkumeak saltzera. Aitak lantegian lan egin arren, goizean goiz lanera joan aurretik, artaldea zaintzera joan ohi zen, eta iluntzean berdin. Beraiek ere laguntzen zioten aitari lan horietan.

3. Artegira ardiak jeztera

- **Erref**: LGA-062/005
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:10:33. **Bukatu**: 00:14:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Ardiak artegian jezten zituzten beti. Ardientzako askak egurrezkoak izaten ziren, baita "artxarak" ere. Hurritz zotzekin egindako hesiak egoten ziren inguruan, arkumeak bereizteko ardiengandik. Ardi herrenik ez zen izan auzoan eta inguruan, hori beranduagoko kontua izan omen zen, nahiz eta beste auzo eta herri batzuetan ordurako baziren ardi herrenak. Harri urdina eta iodoa izaten ziren botikarik onenak ardi herrenentzat.

4. Ardi moztea

- **Erref**: LGA-062/006
- **Iraupena**: 0:04:42. **Hasi**: 00:14:14. **Bukatu**: 00:18:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Ardi moztea San Joanetan egiten zen. Aitak mozten zizkien ardiei zatirik konplikatuenak, eta errazenak berari uzten zizkion. Jaio eta handik urtebetera mozten zieten isatsa arkumeei, ondoren buztana erre egiten zuten, guritutako burdinarekin. Markatu ere egin behar izaten ziren ardiak, norbere ardiak identifikatzeko. Zintzarriak ardi banaka batzuei bakarrik jartzen zizkien, baziren ardi denei jartzen zizkienak ere.

5. Eskolan euskaraz, tarteka

- **Erref**: LGA-062/008
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:21:32. **Bukatu**: 00:25:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Zazpi urterekin hasi eta 14 urte bete arte ibili zen Nati eskolan. Zazpi urterekin eskola nazionaletan hasi zen, doña Felicitas maistraren oroitzapen oso ona du, gaztelaniaz egin behar izaten zuten, baina euskaraz zerbait oker esanez gero, doña Felicitasek zuzendu egiten omen zuen esandakoa, eurek ikas zezaten. Erdaldunak ere baziren eskolan.

6. Eskolan, neskak alde batetik, mutilak bestetik

- **Erref**: LGA-062/009
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:25:26. **Bukatu**: 00:28:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Goizero, eskolara sartu orduko mezara joaten ziren, errezatzera, kapila bertan baitzegoen. Mutilek egurrezko kaxoi edo apaletan uzten zituzten etxetik eramandako oinetakoak, eta beste batzuek janzten zituzten, bai mezarako eta baita errekreora irteteko ere. Natik kontatzen du eskolara sartu orduko "¡Viva España!" abestu behar izaten zutela, ondoren errezoak, eta orduan hasten zirela lanean.

7. Eskolastikara josten ikastera

- **Erref**: LGA-062/010
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:28:23. **Bukatu**: 00:33:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Josten ikasten hasi zen Nati, Legazpiko Eskolastikan. Sei edo zazpi emakume joaten ziren josten ikastera emakume harengana, negu garaian abrigoak josten zituzten, uda garaian soinekoak edo trajeak gehiago. Arropak neurrira egiten zituzten, josteko makinak erabiltzen zituzten. Lanazko telak, "Cheviot"... tela mota desberdinekin egiten zuten lan, Donostiara-eta joaten ziren telak erostera.

8. Abarkak eta zapiak

- **Erref**: LGA-062/011
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:33:08. **Bukatu**: 00:36:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Juliok uda partean abarketak erabiltzen zituen, eta neguan berriz, abarkak. Ez zuen txapela erabiltzeko ohitura handirik, nahiz eta tarteka jantzi izan. Zapi ilunak erabiltzen zituen Natik lanerako. Neska gazteak sorora joaten ziren, garia lotzera, besarea besoan hartuta. Kaletar jendea azalez zuria zenez, Natik dio txapelak egiten zituztela soroan, eguzkiak azala erre ez ziezaien.

9. Kaletarrak eta baserritarrak

- **Erref**: LGA-062/012
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:36:21. **Bukatu**: 00:38:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Kalean, eskolan... baserritarrak ez ziren gutxietsiak izaten kaletarrengandik, eskolan maistrek ere kontrolatzen zuten hori. Hala ere, beti ez zen hala izaten, eta Urretxun euskal jai egunean gertaturiko istorio bat kontatzen du Natik.

10. Gari jotzea

- **Erref**: LGA-062/013
- **Iraupena**: 0:05:40. **Hasi**: 00:38:38. **Bukatu**: 00:44:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Artoa, garia... denetarik jorratzen zuten, alpapa geroagoko kontua izan zen. Garia kentzean, uztailan, arbia lantzen zen, arbia kentzean artoa, eta udazkenean, garia lantzen zen, uztailan jasotzen zelarik. Garia eskuz jasotzen zuten, igitaiarekin, metan zortzi egunez izaten zuten garia, eta ondoren zabaldu egiten zuten. Garia jotzeko auzotar denen artean makina bat hartzen zuten, eta makina hartan garia nola jotzen zuten kontatzen du Juliok. Behin garia jota, garia garbitzeko "dornuan" sartzen zuten.

11. Errotara garia eta artoa ehotzera

- **Erref**: LGA-062/014
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:44:18. **Bukatu**: 00:47:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gizonezkoek eta emakumezkoek lan desberdinak egiten zituzten gari jotzean. Behin lanak amaituta, festa ederra izaten zen ondoren. "Bengolea" errotara joan ohi ziren artoa eta garia ehotzera, astoan joaten ziren eta "Bengolea" itxita egon zen garaian, Antzuolara joan ohi ziren.

12. Saltzaileak, traperoak eta ijitoak

- **Erref**: LGA-062/015
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:47:08. **Bukatu**: 00:52:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Irin zakuak hiru edo lau aste irauten zien etxean, bi labe zituzten etxean ogia egiteko. Okinik ez zen joaten euren baserrira, saltzaileak bai, denetarik saltzen zutenak: josteko orratzak, kordoiak... Legazpin trapero bat bazen, "Jerusalem" deitzen zioten. Ijitoak ere baziren, haietako bat Santa Kutzetan astoei ilea moztera etortzen zen Legazpira, guraize okerrekin. Markatu egiten zituen astoak, berak moztutakoak zirela jakin zezan jendeak.

13. Osaba Santoñatik Madrilgo kartzelara

- **Erref**: LGA-062/016
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:52:23. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Osaba bat Santoñara joan zen gerra garaian, gudariekin, eta Madrilen kartzelaratu zuten. Donostiako osaba izeba batzuek ere alde egin zuten Donostiatik, beldurrez, jende askok egin zuen ihes gerraren beldur.

14. Ganadua ez, baina babarrun zakuak ezkutuan

- **Erref**: LGA-062/017
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:55:00. **Bukatu**: 00:58:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:
Ganadua izkutatu beharrik ez omen zuten izan gerra garaian, baina bistan ere ez omen zuten uzten, badaezpada. Babarrun zakuak-eta ezkutatu izan zituzten, bestela udaletxera eraman behar izaten baitzen jasotakoaren zati bat. Etxeko errenta dirutan eta kapoietan ordaintzen zuten. Natik kontatzen du senarra zenaren txahalari buruzko istorio bat.

15. Eguzkitzazelaiko ermandadea

- **Erref**: LGA-062/018
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:58:12. **Bukatu**: 01:01:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Ganadu ermandadea zuten auzoan, txabola batean elkartzen ziren, Eguzkitzazelaiko ermandadea deitzen zieten. Hogeita lau baserri elkartzen ziren ermandadean. Juliok ganaduaren balioari buruzko azalpenak ematen ditu.

16. Legazpiko lantegi eta tabernak

- **Erref**: LGA-062/019
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:01:03. **Bukatu**: 01:02:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Patrizioren lantegia eta paper-lantegia bakarrik zeuden garai batean Legazpin. Geroxeago beste tailer txikiago batzuek ere zabaldu zituzten, tabernak ere baziren.

17. Mutilak santa eskean Brinkolara

- **Erref**: LGA-062/020
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 01:02:08. **Bukatu**: 01:03:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:
Mutilak neguan auzoan bertan elkartzen ziren, udan erromeria batetik bestera ibiltzen baitziren. Neguan kartetan jolasten zuten, musean-edo, meriendatu, eta etxera erretiratzen ziren. Urte batean santa eskean irten ziren, trenez Brinkolara joan eta bertan aritu ziren kantuan.

18. Mutilak musean, neskak zinean

- **Erref**: LGA-062/021
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 01:03:58. **Bukatu**: 01:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Janaria saltzen zuten bi kooperatiba zeuden Legazpin. Tabernak, berriz, ugari: Txoko, Toki-Alai, Andres Enea... Igande arratsaldeetan zinera joaten zirela dio Natik, Ibaiondo zinera. Mutilak Eguzkitza baserrian bertan elkartzen ziren, jokoan aritzeko, musean-eta.

19. Hitanoa eta erreberentziak

- **Erref**: LGA-062/022
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 01:07:35. **Bukatu**: 01:11:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Lagun artean eta neba arreben artean hika aritzen zirela dio Juliok, Natik dio bera hika trabatu egiten zela, eta zuka gehiago aritzen zela. Gurasoei zuka egiten zieten biek, baita aitona-amonei ere, eta apaizari, berorika. Elizak jakinarazpenik egiten bazuen kalean zehar ibiliko zirela olio santuarekin edo jauna hartzeko deia eginaz, makurtu egin behar izaten zuten elizakoak pasa arte, erreberentzia gisa. Konfesatzera ere sarri joan ohi ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-31

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com